



Oinarrizko ekintzak

ECO SLIPPERS enpresaren ekintza nagusia txankletak sortzea da, % 100 birziklatutako produktuak bakarrik erabiliz, hala nola kortxoa edo plastikoa. Txankletak hasieratik bukaeraino eginten dira gure enpresan.

Gure tailerrean txankleta hutsetik sortzen dugu. Txankletak egiteko materialak hauek dira: kortxoa eta plastikoa.

Zerra elektrikoa dugu, kortxoa mozteko. Plastikoa urtzen dugu eta molde batean jartzen dugu. Tirak egiten dituen makina bat ere badugu. Hori beranduago izango da gure txankleten oinarria. Txankleta montatzea oso erraza da. Lehenik eta behin kortxoa neurrira mozten dugu zerrarekin oinarria sortzeko. (Bezeroak bere neurria zehaztuko du aurretik), ondoren plastikoa urtzen dugu eta molde batekin txankleta sortzen dugu.

Azkenik, tirak jarriko ditugu, oinak txankletari egokitzeko eta mugi ez daitezzen erabiltzen direnak.

Behin txankleta eginda, biltegian gordeko ditugu eta eroslearekin harremanetan jartzen gara bere eskaera prest dagoela jakinarazteko. Txankleta internet bidez erosi badigute, erosleari entregatuko diogu posta bulegoaren bidez. Bestela gure lokalean jasoko du bere eskaria.

Ordaintzeko metodologia erraza da bezeroarentzat.

Bezeroak produktua denda fisikoan erosten badu, gure dendan ordainduko du. Erosketa internet bidez egiten bada, erosketa etxetik egiten den unean ordainduko da eta egun gutxi batzuetara iritsiko da.

Gure enpresan ere arazoak sor daitezke, adibidez, materialik gabe geratzea. Materialik ez badugu, ezin dugu ekoitzi, eta ekoitzi ezin badugu, ezin dugu saldu. Hori gerta ez dadin, ezinbestekoa da biltegian zenbat material dugun uneoro jakitea eta hau kontrolatzea.



Beste arazo bat izan daiteke ekoizpenean eskaera bat bertan behera uztea; hori gertatzen bada, dirua galtzen dugu, dagoeneko gastatu baitugu energia eta materialak txankleta horiek egiteko.

Arazo larri bat ere da, eskaera postaz bidaltzen badugu, galtzea. Galduz gero, erosleari eskaera bera egin beharko genioke berriro, eta berriz ere denbora eta diru gehiago galduko genuke, bi aldiz ari baikara egiten.

Hori gertatzen bada, banaketaz arduratzen den konpainiarekin hitz egin beharko genuke dirua itzultzeko edo akordioen batera iristeko.



FLUXUGRAMA:

